

Gazte langabeei euskal enpresetan Praktikaldiko Kontratua egiteko Diru-laguntzen 2014ko Deialdia. Lehen Aukera Programa.

Deitzailea: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua

Laguntzailea: Santurtziko Udala “Behargintza Santurtzi” Enplegu eta Tokiko Garapeneko Zentroaren bidez.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak:

Praktikaldiko kontratuak, gutxienez 6 hilekoak, pertsona gazteei egindakoak, EAEko lantokietan lan egiteko direnak.

Zenbatekoa: Kontratuaren iraupen eta lanaldiaren araberakoa. Lanaldi osoko eta 6 hilabeteko kontrakoa denean, honakoa izango da diru-laguntza hileko soldata gordinaren tartearen arabera:

| | Hileko Soldata Gordina | Diru-laguntza |
|-----------|--------------------------------|---------------|
| 1go tarte | 872 eta 1.050 euro bitartean | 2450 euro |
| 2. tarte | 1.051 eta 1.290 euro bitartean | 2.950 euro |
| 3. tarte | 1.290 euro baino gehiago | 3.620 euro |

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatekoak lanaldiaren araberakoak izango dira. Halaber, zenbateko hauek %10 igoko dira, baldin eta gutxieneko iraupena 12 hilabetekoa bada.

Epeak: Diru-laguntza eskatzeko, 2014ko azaroaren 14ra arte.

Kontratuak gauzatzeko, 2014ko abenduaren 20a baino lehen.

Eskatzeko prozedura :

Diru-laguntzak lortzeko eskabideak II. eranskinean dauden eredu ofizialen bidez egingo dira, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko webgunean direnak, eta “Behargintza Santurtzi” Enplegu eta Tokiko Garapeneko Zentroaren bidez.

Enpresen baldintzak: Helbide sozial eta fiskala edo lantokia EAEn izatea; Administrazio Publiko batek edo gehiagok ez izatea %50 baino gehiagoko partaidetza, zuzenean edo zeharka; enplegurik suntsitu ez izana kontratazioaren bidez bete nahi den lanpostuan, kontratazio berria egin baino urtebete lehenagotik eta kontratazioak dirauen aldian; kontratazioen ondorioz, aurreko 6 hilabeteetan enpresan zeuden langileen batez besteko kopuru guztiaren araberrako enplegu garbia sortzea.

Kontratatuako diren pertsonen profila: pertsona gazteak, 16 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak, baldin eta honako baldintzak betetzen badituzte:

- Euskal Autonomia Erkidegoan izatea bizilekua.
- Langabeak izatea eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskataile gisa izena emanda egotea.

Deialdiaren 5. artikuluan aipatutako 1. eta 2. Taldeetako tituluren bat izatea.
1go Taldea:

- Lizentziaduna edo Unibertsitateko Gradua, Ingeniaria, Arkitektoa.
- Unibertsitate-diplomaduna, Ingeniari Teknikoa, Arkitekto Teknikoa.

2. Taldea:

– Lanbide Heziketa arautuko eta Berriazko Lanbide Heziketako Goi- edo erdi-mailako teknikaria; Teknikari Laguntzailearen (LH1) eta Teknikari Espezialistaren (LH2) tituluak horien baliokideak izango dira.

- Ofizialki aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulu batzuk.
- – Profesionaltasun ziurtagiria.
- Gazte Bermerako Sistemaren datu-basean egotea eta aurrez egiaztatu izana beteta dauzkatela Sistema horretara sartzeko baldintzak.
- Kontratuaren hasiera data aurreko 30 egun naturaletan lanean ibili ez izana.